

# Topalekua

103 zk. 2020ko uztaila

EHU/UPVko GIZARTE KONTSEILUA  
CONSEJO SOCIAL DE LA UPV/EHU

## Gizarte Kontseiluak UPV/ EHUko berezko tituluen prezioak onetsi ditu 2020-2021 ikasturterako

**Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurak Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak 2020-2021 ikasturtean emango dituen berezko titulu eta titulu osagarri guztien prezioak gainbegiratu eta onetsi zituen uztailearen 15ean Bilbon elkaturik. UPV/EHUk 150 graduondoko programa baino gehiago ditu hiru campusetan –lurraldeko bana–, eta horietatik hirurogei inguru masterrak eta graduondokoak dira.**

Osoko bilkuran, halaber, erabaki zuten 5 titulazio berri ezartzeko eta 4 erretiratzeko proposamena egitea Hezkuntza Sailari. Beste zazpi aldatu zituzten. Orotara, hamasei espediente aztertu zituzten: horietatik zazpi graduonak eta beste bederatzia, berriz, masterrak. Ikasketak hasita dauzkaten ikasleek bermaturik dauzkate aplikatzekoak zaizkien deialdi guztiak.

### Ezarpen berrikoak

- Grado en Inteligencia Artificial
- Adimen Artifizialeko Gradua
- Ingurumen Ingeniaritza eta Kudeaketako Masterra
- Enologia Berritzaileko Unibertsitate Masterra
- Hizkuntzaren eta Komunikazioaren Teknologia Erasmus Mundus Unibertsitate Masterra (LCT) / Erasmus Mundus Master in Language and Communication Technologies (LCT)
- Ingurumen Kutsadurako eta Toxikologiako Erasmus Mundus Unibertsitate Masterra / Erasmus Mundus Master of Science in Environmental Contamination and Toxicology and Toxicology

### Aldatuak

- Psikologiako Gradua
- Kazetaritzako Gradua
- Publizitateko eta Harreman Publikoetako Gradua
- Ikus-entzunezko Komunikazio Gradua
- Soziologiako Gradua
- Politika Zientziako eta Kudeaketa Publikoko Gradua
- Ingeniaritza Kimikoko Unibertsitate Masterra Quimica

### Ezabatuak

- Enologia Berritzaileko Masterra
- Gailu eta Sistema Fotovoltaikoetako Unibertsitate Masterra
- Kuaternarioa: Ingurugiro Aldaketak eta Giza Oinatzia Unibertsitate Masterra
- Garraio Sistemen Unibertsitate Masterra

### Berezko masterrak eta graduondokoak

Kontseiluak ikasturte 2020/2021 ikasturterako prezioak ere onetsi zituen berezko 57 master eta graduondokoetarako: haietatik bostek prezioa aldatuko dute, 37k berdin jarraituko dute eta beste 15 berriak dira. Datorren ikasturtean, UPV/EHUk honako berezko titulu hauek emango ditu zehazki: 5 Arkitekturan, 4 Arte eta Zientzietan, 2 Gizarte Ongizatean, 11 Bizitza Kalitatean eta Osasunean, 2 Gizarte eta Zientzia Politikan, 4 Zuzenbidean, 4 Hezkuntzan, 10 Enpresa eta Ekonomian, 3 Hizkuntza eta Literaturan, 10 Ingeniaritza eta Teknologian, 1 Ingurumenean eta 1 Biktimologian. Masterrak eta graduondokoak katalogoa kontsultatzeko, <https://www.ehu.es/eu/web/titulospropios/berezko-titulazioen-eskaintza>.

Kapitulua horretan bertan, osoko bilkurak onetsi zuten Giza Zientzietako unibertsitate-tituluen prezioak mantentzea (Esperientzia Ikasgelak) 2020-2021 ikasturterako. Horretaz gainera, adostu zuten matrikula-prezioak baliozkotzea ikasketak osagarrien 12 ikastarotan.

Saio horretan bertan, osoko bilkurak aurrekontuak aldatzeko 10.000 eurotik gorako zortzi proposamen baino gehiago onetsi zituen: 207.678 euroko zenbatekoa orotara, bulegoko materiala, ikasmateriala, material zientifikoa eta inbentariagarria erosteko. Halaber, adostu zuten 10.000 eurotik beherako aurrekontu-aldaketan 79 proposamen baliozkotzea, 207.893 euroko zenbatekoarekin, haiek ere ekipamendu zientifikoa, irakas-materiala, informatikoa eta ikus-entzunezkoa eskuratzeko. Aurrekontuetan orotara egingo dako 87 aldaketan batura 415.571 euro da.

Halaber, Gizarte Kontseiluak erabaki zuten bost lankidetzak beka banatzea, Ministerioak 2020-2021 ikasturterako deituak, UPV/EHUren sail hauetarako: Matematika Aplikatua, Estatistika eta Ikerkuntza Operatiboa; Ingeniaritza Kimikoa; Medikuntza; Historia Garaikidea; eta Hezkuntzaren Teoria eta Historia.

### Soziolinguistika Klusterraren kide

Saio berean, onetsi zuten Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak Soziolinguistika Klusterrean parte hartzea. Orain artean, sail batzuk bakarrik ziren haren kide, baina ez zen kide zuzena. Hala, euskara berreskuratzeko eta normalizatzeke 2004an sorturiko kluster horren helburu estrategikoetan bildu ahalko da UPV/EHUren ikuspegi instituzionala.

Azkenik, eta bilkura berean, osoko bilkurak Gizarte Kontseiluaren 2019ko abenduaren 31ko aurrekontu-likidazioaren egoerak onetsi zituen, dagokion auditoretza-txostenarekin. Onetsi zuten, halaber, osoko bilkuran eta batzordeen egutegia, 2020ko abendurako eta 2021eko martxorako eta uztaileko.

### HKEEren 2016ko eta 2017ko fiskalizazio-txostenak

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, halaber, 2016ko eta 2017ko UPV/EHUren fiskalizazio-txostenak aurkeztu zituzten Gizarte Kontseiluren osoko bilkurari. Erakunde haren arabera, UPV/EHUk modu arrazoizkoan bete zuten gai horri dagokion jarduna arautzen duen lege-araudia aipatutako ikasturte horietan.

2017ko urteko kontuei dagokionez, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak aldeko iritzia eman zuten, baina ezin izan zuten ondorioztatzea gerakin espezifikoen arrazoizkotasuna (75,5 milioi euro), zeinaren parte bat gastu orokorretarako gerakintzat jo beharko bailitzateke. Antzeko oharra egin zituen partida horietan 2016ko ekitaldiari dagokionez.

**UNIBERTSITATE-EGRESATUEN LANERATZEARI BURUZKO AZTERKETA**

**LAUGARREN URTEAN AFILIAZIO-TASA HANDIENAK DITUZTEN UPV/EHU-ko TITULAZIOAK** (Gradua eta Zikloa, 2015-2018)

	2013-2014ko egresatuak			2015eko martxoak 23			2018ko martxoak 23		
	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	Emakumea	Gizona
Espainiako unibertsitate-sistema guztira	233.626	% 58,5	%41,5	%47,0	%45,5	%49,0	%72,3	%71,9	%72,8
<b>Euskal Herriko Unibertsitatea guztira</b>	<b>7.710</b>	<b>%56,2</b>	<b>%43,8</b>	<b>%46,8</b>	<b>%45,0</b>	<b>%49,0</b>	<b>%78,9</b>	<b>%78,6</b>	<b>%79,4</b>
Elikagaien Zientzia eta Teknologia	13	%76,9	%23,1	%46,2	%40,0	E/Z	%100,0	%100,0	E/Z
Medikuntza	254	%74,4	%25,6	%4,3	%3,7	%6,2	%97,6	%96,8	%100,0
Industria Ingeniaritza Elektronikoa eta Automatikoa	209	%16,7	%83,3	%65,6	%65,7	%65,5	%90,4	%85,7	%91,4
Beste irakasle batzuk	40	%67,5	%32,5	%85,0	%81,5	%92,3	%90,0	%88,9	%92,3
Telekomunikazioetako Ingeniaritza	152	%32,9	%67,1	%53,3	%52,0	%53,9	%89,5	%94,0	%87,3
Espainiako Hizkuntzak eta Dialektoak	78	%62,8	%37,2	%38,5	%32,7	%48,3	%88,5	%85,7	%93,1
Farmazia	121	%77,7	%22,3	%69,4	%71,3	%63,0	%88,4	%88,3	%88,9
Ingeniaritza Elektrikoa	82	%14,6	%85,4	%63,4	%33,3	%68,6	%87,8	%83,3	%88,6
Informatika	213	%23,0	%77,0	%68,5	%75,5	%66,5	%87,8	%83,7	%89,0
Beste atzerriko hizkuntza batzuk	8	%87,5	%12,5	%50,0	%42,9	E/Z	%87,5	%85,7	E/Z

ZIENTZIA, BERRIKUNTZA ETA UNIBERTSITATE MINISTERIOAREN TXOSTENAK GRADUATUEN ENPLEGAGARRITASUNA AZTERTZEN DU

## UPV/EHUko titulazioen artetik, Elikagaien Zientzia eta Teknologia, Medikuntza eta Industria Ingeniaritza Elektronikoa dute afiliazio-tasa handiena Gizarte Segurantzaren

**2015etik bigarrenaz argitaratu duten azterlan honen xedea zera da, aztertzea zer enplegagarritasun duten unibertsitate-tituladunek karrera amaitu eta hurrengo lau urteetan.**

Ministerioaren *Unibertsitate-egresatuen laneratze-azterketak* on-dorioztatzen duenez, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean 2013-2014 ikasturtean Elikagaien Zientzia eta Teknologia ikasitakoak % 100, Medikuntza ikasitakoak % 97,6 eta Industria Ingeniaritza Elektronikoa eta Automatikoa ikasitakoak % 90,4 Gizarte Segurantzaren afiliaturik zeuden 2018an, karrera amaitu eta lau urtera. Afiliazio-maila handiena duten karreraren zerrenda horretan jarraitzen dute honako ikasketak hauek: beste irakasle batzuk (% 90), Telekomunikazioetako Ingeniaritza (% 89,5), Espainiako Hizkuntzak eta Dialektoak (% 88,5), Farmazia (% 88,4), Ingeniaritza Elektrikoa eta Informatikoa (% 87,8) eta atzerriko beste hizkuntza batzuk (% 87,5).

Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioaren txosten hori Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak eta Unibertsitate Informazioko Sistema Integratuak emaniko datuekin

egina da. 2015eko lehendabiziko txostenak ez bezala, oraingo honetan sexuaren arabera bereizita datoz datuak. UPV/EHUren kasuan, Gizarte Segurantzara atxikitako gizon egresatuen tasa % 79,4 da, eta emakumezkoena, berriz, % 78,6, 2018ko martxoaren 23an jasotako datuen arabera.

### Politika eta Kudeaketa Publikoa, eskari txikiena duena

UPV/EHUren titulazioen artean, Diseinua (% 61,5) eta Politika eta Kudeaketa Publikoa (% 48,1) ageri dira Gizarte Segurantzaren afiliazioan portzentaje txikiena dutenen zerrendan. Aipatutako espezialitate horien artean daude, halaber, Kriminologia (% 61,4), Zuzenbidea (% 57,7), Kudeaketa eta Administrazio Publikoa (% 57,1) eta Filosofia (% 56,7), beste hainbaten artean.

**LAUGARREN URTEAN AFILIAZIO-TASA APALENAK DITUZTEN UPV/EHU-ko TITULAZIOAK** (Gradua eta Zikloa, 2015-2018)

	2013-2014ko egresatuak			2015eko martxoak 23			2018ko martxoak 23		
	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	Emakumea	Gizona
Espainiako unibertsitate-sistema guztira	233.626	% 58,5	%41,5	%47,0	%45,5	%49,0	%72,3	%71,9	%72,8
<b>Euskal Herriko Unibertsitatea guztira</b>	<b>7.710</b>	<b>%56,2</b>	<b>%43,8</b>	<b>%46,8</b>	<b>%45,0</b>	<b>%49,0</b>	<b>%78,9</b>	<b>%78,6</b>	<b>%79,4</b>
Diseinua	52	%73,1	%26,9	%30,8	%26,3	%42,9	%61,5	%65,8	%50,0
Kriminologia	44	%72,7	%27,3	%31,8	%25,0	%50,0	%61,4	%62,5	%58,3
Zuzenbidea	234	%67,9	%32,1	%21,4	%20,8	%22,7	%57,7	%61,0	%50,7
Kudeaketa eta Administrazio Publikoa	7	%42,9	%57,1	%57,1	E/Z	E/Z	%57,1	E/Z	E/Z
Filosofia	30	%50,0	%50,0	%26,7	%33,3	%20,0	%56,7	%60,0	%53,3
Kontserbazioa eta Zaharberritzea	15	%80,0	%20,0	%33,3	%33,3	E/Z	%53,3	%50,0	E/Z
Artearen Historia	42	%69,0	%31,0	%23,8	%20,7	%30,8	%52,4	%44,8	%69,2
Arte Ederrak	175	%73,7	%26,3	%33,1	%34,9	%28,3	%52,0	%50,4	%56,5
Geografia eta Lurralde Antolaketa	14	%57,1	%42,9	%21,4	%25,0	%16,7	%50,0	%37,5	%66,7
Politika eta Kudeaketa Publiko	27	%40,7	%59,3	%22,2	%18,2	%25,0	%48,1	%36,4	%56,3


**UNIBERTSITATE-EGRESATUEN LANERATZEARI BURUZKO AZTERKETA**

ERRIOXAREN ETA BALEAR UHARTEEN ATZETIK, TITULUDUNEN GIZARTE-SEGURANTZAKO AFILIAZIO-TASAN

Euskal Autonomia Erkidegoa hirugarren postuan ageri da unibertsitateko hezkuntza-eskaintzaren enplegarritasun-mapan

**Euskadi hirugarren tokian ageri da unibertsitate-tituludunen Gizarte Segurantzako afiliazio-tasa handiena duten autonomia-erkidegoen zerrendan (% 79,2). Atzetik ditu Nafarroa (% 78), Katalunia (% 77,5) eta Madril (% 72,9), besteak beste.**

**UNIBERTSITATE-EGRESATUEN AFILIAZIO-TASA**  
(Gradua eta Zikloa, 2018. Autonomia-erkidegoen arabera)



**UNIBERTSITATE-TITULUDUNEN GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIO-TASA EUSKADIN**

	2013-2014ko egresatuak			2015eko martxoak 23			2018ko martxoak 23		
	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	Emakumea	Gizona
Espainiako unibertsitate-sistema guztira	233.626	%58,5	%41,5	%47,0	%45,5	%49,0	%72,3	%71,9	%72,8
<b>Autonomia-erkidego guztiak Euskadi</b>	<b>10.026</b>	<b>%56,1</b>	<b>%43,9</b>	<b>%48,3</b>	<b>%46,1</b>	<b>%51,2</b>	<b>%79,2</b>	<b>%78,7</b>	<b>%79,8</b>
Euskal Herriko Unibertsitatea guztira	7.710	%56,2	%43,8	%46,8	%45,0	%49,0	%78,9	%78,6	%79,4
Arteak eta Giza Zientziak	615	%68,1	%31,9	%33,8	%34,4	%32,7	%64,9	%64,2	%66,3
Zientziak	442	%56,3	%43,7	%19,0	%20,9	%16,6	%77,1	%80,3	%73,1
Osasun Zientziak	958	%81,1	%18,9	%34,0	%34,6	%31,5	%85,1	%85,1	%85,1
Gizarte eta Lege Zientziak	3.361	%64,1	%35,9	%49,8	%50,3	%49,1	%77,3	%77,8	%76,4
Ingeniaritza eta Arkitektura	2.334	%31,4	%68,6	56,3	%55,1	%56,8	%82,8	%81,6	%83,3

Autonomia-erkidegoen enplegarritasun-mapan, karrera amaitu eta lau urtera Gizarte Segurantzako afiliazio-tasa Andaluziako %65,6ren eta Errioxako %81,1en artean dabil.

**Osasun Zientziak, enplegarritasun handiena duten ikasketak**

2018ko martxoaren 23an, Euskadiko egresatuen afiliazio-tasa %79,2 zen; Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateari dagokionez, berriz, %78,9. Alorrez alor eginiko zerrendaren buruan ageri dira Osasun Zientziak (%85,1), Ingeniaritza eta Arkitektura (%82,8), Gizarte eta Lege Zientziak (%77,3) eta Zientziak (%77,1). Arte eta Giza Zientziek guztizkoaren %64,9 hartzen dute.

Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak urtero-urtero argitaratu nahi du txosten hau, Administrazio Publikoen eta hezkuntza-komunitateak informazio egiazkoa eta kontrastatua izan dezan eskatutako lanpostuen, enplegarritasunaren eta tituludunen laneratzearen gainean. Emandako datu guztien eta haiek aztertuta eskuratutako ondorioen bidez, egokiro antolatuta

ahalko dira unibertsitate-politikak eta txertatu beharreko ekin-tzak.

Bigarren txosten hau egiteko, Gizarte Segurantzako afiliazio-tasaren gaineko informazioa baliatu da, baita autonomoen ehunekoak, lan mota eta unibertsitate ikasleen lanaldia ere. Horretaz gainera, kontuan hartu da zer kotizazio-taldetakoak diren eta zer kotizazio-oinarri duten.

**Unibertsitate-tituludun gutxi autonomoen araubidean**

Oro har, gutxi dira langile autonomoen araubidean afiliatzen diren unibertsitate-tituludunak (%8,9); ondorio horrek egonkor jarraitu du azterketak bildu duen lau urteko denboran. Euskadiren kasuari erreparatu gero, tasa hori are txikiagoa da: %7,5. UPV/EHUri dagokionez, %7,1 zen 2018ko martxoan.

Txostena osorik kontsultatzeko, jo Gizarte Kontseiluen Konferentziaren orrira: [www.ccsu.es](http://www.ccsu.es).

**AUTONOMOEN ARAUBIDEAN AFILIATURIKO UPV/EHU-ko EGRESATUAK** (Gradua eta Zikloa, 2015-2018)8)

	2015eko martxoak	2016ko martxoak	2017ko martxoak	2018ko martxoak
Espainiako unibertsitate-sistema guztira	%9,0	%8,5	%8,7	%8,9
<b>Autonomia-erkidego guztiak Euskadi</b>	<b>%6,8</b>	<b>%6,6</b>	<b>%6,7</b>	<b>%7,5</b>
Euskal Herriko Unibertsitatea guztira	%6,6	%6,4	%6,4	%7,1

HELBURUA ZEN PORTAERA-IRIZPIDEAK EMATEA IKASTEGIEI, PANDEMIAREN BILAKAERA AINTZAKOTZAT HARTUTA

## UPV/EHUK plan bat abiarazi du COVID-19aren inpaktuari aurre egiteko "Normaltasun berrian"

**Nekane Balluerka UPV/EHUKo errektoreak COVID-19aren pandemiak unibertsitateko eguneroko martxan izandako inpaktuari aurre egiteko neurri guztien errepaso egin zuen, uztailaren 15ean egindako UPV/EHUKo Gizarte Kontseiluaren osoko bilkuran. Ezusteko agertoki gogor horrek aldaketa handiak eragin ditu denbora oso laburrean eguneroko martxako alderdi guzti-guztietan.**

Errektorearen esanetan, irakasleen, ikasleen, administrazio langileen eta garbitzaileen ahalegin eta inplikazioari esker, UPV/EHUK baldintza posible onenetan amaitu du ikasturtea.



2020-2021 ikasturteari begira, Nekane Balluerkak berriki onetsitako Irakaskuntza eta ikaskuntza antolatzeko jarraibideak izeneko agiria aurkeztu zuen, zeinean «normaltasun berriko» aldiari heltzeko gidalerroak ezartzen baitira. Errektoreak ohartarazi zuenez, oso kontuan hartu behar da ez dela baztertzeko UPV/EHUK hasiera batean aurreikusitakoak baino muturreko neurriak hartu behar izatea.

### Lehentasuna, aurrez aurreko eskolak

Aurrekoa aintzat harturik, aipatutako dokumentuan zehaztatzen diren orientabideek, ahal den neurrian, UPV/EHUKo irakaskuntzaren aurrez aurretasuna babestu nahi dute, baina urrutitze sozialeko, edukiera mugatuko eta higie- eta osasun-neurriak hartzeko egoeretara egokituta. Hori horrela, UPV/EHUK, ahal den bitartean, gutxienez lau ikasgaitik hiru aurretik aurre ematearen alde egiten du.

### HAINBAT GOMENDIO 2020-2021 IKASTURTEKO ORDUTEGIAK PRESTATZEKO

- ✓ Titulu guztietan, eta osasun agintarien gomendioak errespetatuta betiere, irakaskuntzaren % 75 gutxienez presentziala izatea bermatzen saiatuko gara.
- ✓ Jarduera presentzialen kasuan, eskolak hasteko eta amaitzeko ordutegia ikastegiko maila eta/edo titulu guztietarako berdina izatea saihesten saiatuko gara.
- ✓ Ordutegietan ikasleek argi ikusteko moduan identifikatuko da zer jarduera emango diren aurretik aurre eta zer ikasgelatan emango diren.
- ✓ Gomendatzen dugu, ahal den neurrian, maila bereko jarduera presentzial guztiak egun berean biltzea (goizez edo arratsaldean), ikasleek irakaskuntza telepresentziala (ikasgaitik kanpo) eta presentziala txandakatu behar izan ez dezaten.
- ✓ Ahal den neurrian, ikasleek ikasgelaz aldatu behar ez izatea saiatuko gara.
- ✓ Saihestu behar dugu, ahal den neurrian, jarduera presentzialak 20:00ak baino beranduago amaitzea, eguneroko garbiketa eta desinfekzio lanak errazteko.

Errektoreak gogorarazi zuenez, ikasturte honetan UPV/EHUK hartuak zituen hainbat neurri alarma-egoera deklaratu aurretik ere. Zehazki, joan den martxoaren 9an eten egin zuen aurretik aurreko jarduera akademikoa Arabako Campusean, eta, handik hiru egunera, Bizkaian eta Gipuzkoan ere bai. Ezohikoa izan zen aurretik aurreko irakaskuntzatik ikasgelaz kanpoko irakaskuntzara egindako jauzia. Aurretik aurreko eskolak eten ziren egun berean, 600 irakasle bideokonferentziaz lan egiteari ekin zioten.

Nekane Balluerkak ziurtatu zuenez, konfinamendu garaletara itzuli behar izanez gero, unibertsitate publikoak erakutsi du gai dela irakaskuntza eta ikaskuntza jarduerari eusteko, urrutiko hezkuntzako estrategia eta tresnen laguntzarekin.

### PLANA ABIARAZTEN LAGUNTZEKO AURREIKUSITAKO BITARTEKOAK

- ✓ Ikasgelatan kamerak, mikrofonoak eta bozgorailuak jartzea, beharrezkoa denean, eskolak zuzenean emateko.
- ✓ Ikasgaitako ekipamendua, hala behar bada, hobetzea (ordenagailuak, proiektoreak...).
- ✓ BBC programaren lizentziamendua egokitzea, aldi berekotasunari dagokionez, presentzialtasun egokituak sortutako beharrei erantzuteko.
- ✓ Irakasleen prestakuntza plana indartzea, gaitasun digitala hobetzeko ikastaro espezifikoak antolatuz.
- ✓ Ikasleentzako laguntza itzulgarrien urteko deialdia: matrikula ordaintzea + COVID-19tik eratorritako aparteko gastuak.
- ✓ Ekipo eramangarri bat ematea, lan tresna gisa, halakorik ez duten irakasleei (beharrezkoa izango da egoerak banan-banan aztertzea).
- ✓ Ordenagailuak maileguan uzteko zerbitzu bat eta/edo Internetera konektatzeko laguntza antolatzea, zailtasun ekonomikoak dituzten ikasleentzat.